

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

Madagaskar, filmaren izena eta amesgaiztoarena

“Madagaskar” esanda gazteak DreamWorks Animation faktoriaren marrazki bizidun ospetsuez oroitzen dira. Baina Madagaskar da Afrikaren alboko uharte erraldoia, natura oso berezia duen paraje txundigarria... eta haienezako janariak ekoizteko Koreak maizter eduki nahi duen herrialde txiroa.

EUSKAL HERRIAREN ERDIA BAINO handiagoko azalera, 1,3 milioi hektarea, 99 urterako alokatzeko ituna sinatzeko puntuan zegoen. Koreako Daewoo Logistics Corporation hartzaile; Madagaskar uztaille, laborantzarako dauzkan lur guztien erdiak jokoan ipiniz. Londresgo *Daily Telegraph* egunkariak jakinarazi du bertan behera geratu dela tratua.

“Orain buruhausteak dauzkagu Madagaskarreko Gobernuarekin”, deklaratu du Daewooko plangintza manager nagusi Shin Dong-hyun-ek. “Prozesua ondo zihoan, baina batbatean eten egin da komunikabideen informazioengatik. Albisteek Madagaskarreko jendea haserrarazi egin dute, lotsatuta daudelako haiek sistema neo-kolonialista deitzen duten baten partaide izateaz”.

Gaia lehenbizikoz *Financial Times* ekonomiazko egunkariak plazaratu zuen, oihartzuna mundu osoan zabalduz. Geroztik tratua xehetasun batzuk ezagutu dira. Daewoo Logisticsek lur horietako gehienak artoa ekoizteko erabili nahi zituen: 2009an 2.000 hektarearekin hasi eta milioi bat hektarea maizari eskaini. Beste 300.000 hektareak palma-oliotarako landu nahi zituen, gizakiaren osasunean eragiten dituen kalteengatik eta palmondoak landatzeko naturari egiten zaion sarraskiengatik hain polemikoa izan arren.

Zer atera behar zuen Madagaskarreko ordainetan? Tratuaren ezagutzaile batzuek diotenez, oso gutxi, doi-doi lanpostu bakan batzuk, produkzio egitura osoa eta buruzagitza Koreatik ekarriko zirelako. Aldiz, korearrek aipatu dute hogeitertan Daewook 6.000 milioi dolar inbertitu behar zituela Madagaskarren, gehienbat errepide eta portu berrietan, lanpostu asko sortuko zutela eta etekin %30 bertako Gobernuarentzako izango zela.

Alde batera utzirik luberritze masiboak lekarkeen hondamendi ekologikoa natura hain berezia eta aberatsa dituen Madagaskar uharte zaharrean, bertako nekazaritzak jasango luke kolperik handiena. Populazioaren gehiengoa egunean dolar bakarra baino gutxiago irabaziz bizi den herrialdean, bestelako garapen eredu behar da, nekazaritza sendotuko duena. Horrek asaldatu du Elikadura eta Nekazaritzarako Erakundearen (FAO ingelesezko sigletan) lehendakari Jaques Diouf, operazioari izaera neokolonialista egotziz.

Afrikari bertan sistema barruko ekonomi aholkulari moderatuak ere tratua kontra mintzatu dira, nekazaritza industrialak garatzearen alde egon arren bertako laborantzan dagoen sarearekin elkarlanean antolatua beharra dagoelakoan.

Baina Antananarivo eta Seulen artekoa ez da munduan furian dago-

Andrea Rasettiren argazki hau www.worldisround.com gunean erakusten da: Madagaskar erdialdeko paraje idorrean, hiru neska txikiak aita noiz etorriko zain daude, hark egurrak sutu eta otordutarako ekarri duen zekor burua nola erretzen duen ikusteko. Madagaskar Afrikatik oso antzina berezitako irla denez, bertako abereak eta landareak oso bereziak dira, han ez beste inon aurkitu ezin daitezkeenak. James Petrasen iritzian baliteke laster Madagaskar bezalako herrialdeetan baseritarretan oinarritutako askapen nazionalako mugimenduak ikustea, eta aldi berean, lurra behar dituzten potentzia kolonial zaharren eta berrien arteko borroka bortitzak ere bai. Elikagaiak urriak baitira, eta horiekin egiten diren negozioak handiak.

en mugimendu bortitzaren atal bat baizik. Madrillgo *El País* egunkarian Lali Cambrak joan den abenduaren 10ean *La tierra para quien la paga* erreportajea datu esanguratsuek eskaini zituen. Koreak Madagaskarreko operazioa salbatuko balu, zazpi probintziako Euskal Herria (2,1 milioi ha.) baino handiagoko eremua edukiko luke erosita munduan barrena, 2,3 milioi hektarea. Txinak xuxen 2,1 milioi dauzka, Saudi Arabiak 1,6 milioi, Emirerri Batuek 1,2 milioi...

Datu horiek dagozkie herrialde aberats-berri direlakoei. Askoz hektarea gehiago osatzen dituzte Europa eta Amerika aberatsetako multinazionalen erosketek. Lur gose handia dago, eta etxean maizter bihurtuz biziraupena bermatu nahiko lukeen gobernu pobre gehiegi. Agian konkurrentzia horrek esplikatzeko eskandalua *Financial Times* egunkari eskuindarrak abiarazi izana.

XXI.eko neokolonialismoa

James Petras soziologo marxista iparramerikar famatuak gaiari artikulua luzea eskaini dio, gaztelaniaz itzulita *Rebellion* guneak plazaratutako diona: *El gran regalo de tierras: neocolonialismo por invitación*.

Petrasek “konkista agroinperialista” deitzen duen honen sustatzaileak hiru taldetan banatu ditu.



Lehenbizi daude petrolioak aberastu dituen herrialde arabiarrek, buru Saudi Arabia eta Kuwait dituztenak. Bigarren taldean datoz Asiakoak, funtsean Txina, India, Hego Korea eta Japonia, baina Israel ere bai. Hirugarren taldea lehengo herrialde inperialistek (Europa eta AEB), Munduko Bankuak eta korporazio handiek osatzen dute.

Denen artean historiak ezagutu duen lurraren jabego metaketa handienetakoa ari dira burutzen, horretarako erabiltzen dituztelarik tresna politiko eta finantzazkoak, estatu kolpeak, eskuhartze inperialak eta bertako gobernuen kontrako desestabilizazio kanpainak.

Israelen kasua berezia da Petrasentzako, zeren eta zuzeneko zan-

paketa masibo eta etenik gabeaz desjabetzen baititu nazio oso bateko nekazariak, palestinarrak hain zuzen, antzina europarrek eta yankiek egin zuten era kolonialean.

Aipatu multzo bakoitza planetako eremu batean omen dago berezitua. Asiako "tigreek" lurak batik bat Afrikan eta Latinoamerikan hartzen dituzte. Europarrek eta iparramerikarrek Ekialdeko Europakoak eta Sobiet Batasun ohikoak, Afrikako eta Latinoamerikakoez gain.

Maizter eskaintzen direnak ugarriak dira: Pakistan, Filipinak, Sudan, Kuba bera (5.000 hektarea), Birmania, Kamerun, Laos, Mozambike, Kanboia, Maroko, Egipto, Vietnam, Indonesia, Ukraina,

Argentina, Brasil... Bitxia da Txina eta Brasilen kasua.

Zeren eta Japonia, Europa eta AEBetako multinazionalak soro handiak goldatu dituzte Brasilen, eta aldi berean korporazio brasildarrak ari dira Paraguay, Uruguay eta Boliviako alor zabalen jabe egiten. Antzekoa gertatzen zaio Txinari: kapitalista japoniarrek eta atzerriko txinatarrek ustiatzen dituzte Txinako ibar emankor asko, eta Txina Afrikako eta Asiako herrialde txiroenetan ari da eremu zabalak kolonizatzen.

"Agroinperialismoa hasieretan dago" idatzi du James Petrasek. Orain lurren jabe egiten ari dira, bertako baserritarrak eta indigenak kanporatu eta behar dituzten langile apurrak miseria pagatuz kontratatzen. Hurrengo fasean herrialdeko garraio bideak, kreditu sistema eta azpiegiturak berenganatuko dituzte, hazien eta ongarrrien kontrola, prozesamendu industria... Betiko inperialismoa, alegia.

Milioika laboreren lurak eta indigenak baizik bizi ez diren eremu natural zabalak desjabetzeko operazio erraldoi honek mende hasierako krisitzarrarekin egin du tupust. Noren onerako? Alde batek lehengaien prezioak jaitsi egin dira eta kredituen iturriak agortu, erosleen kaltetan. Baina bestetik lurraren prezioa ere jaitsarazi du eta saldu nahi duten eliteen saltzeko presa larritu. ■

www.argia.com/nethurbil.php helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu, produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624 · zinkunegi@euskalnet.net

